

JUANJO RUIZ

Deskribapena: Kike Emun-eko Juanjo Ruizekin kafetegiko terraza batean elkarriketan ageri da.

Kike: “Zure ustez zeintzuk dira erderara bultzatzen gaituzten arrazoirik nagusienak?”

Juanjo: “Oztoporik nagusiena deserosotasuna. Askotan egoera batzutan pentsatzen dugulako beste pertsonak agian ez duela euskeraz jakingo, ez duela ulertuko, agian erdaldun baten aurrean errespetu falta bat izan daitekeela eta horrek guztiak eramaten gaitu hizkuntza-portaera lotsati batera. Zergaitik? Ikasi dugun ikasketa-prozesu baten ondorio da, hizkuntzak ikasten ditugu, euskera, gaztelania baina baita ere hizkuntza horiek erabiltzeko arau sozialak, hau da, norekin erabili, norekin ez, ze tokitan bai, ze tokitan ez. Horrek guztiak eragina dauka hiru mailatan, alde batetik gure pentsamenduetan, aurreiritziak sortzen zaizkigu edo aurreiritziak barneratzen ditugu hizkuntzaren erabilerari buruz eta gure buruari mezu mugatzaileak edo jartzen dizkiogu. Bigarren maila batean emozioak egongo lirarteke eta emozio horiek askotan izango dira emozio nolabait mugatzaileak baita ere, edo urduri sentituko gara, euskeraz egin ezin dugunean frustrazioa sentituko dugu, etsipena, batzutan haserrea, eta azkenik horrek guztiak eramaten gaitu ba, portaera komunikatibo batera dala hain zuzen ere euskaraz egin beharrean gaztelania.”